

## GIG 19

## PALEOZENO/EOZENO MUGA

BALIO INTRINTSEKOA: 4

BALIAGARRITASUN-MAILA: 3,50

KALTEBERATASUN-MAILA: 1

## GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Paleozoaren eta Eozenoaren arteko muga, duela 55,8 milioi urtekoa, Itzurun hondartzaren sarreran dago, zaldien eskulturarik gertu. Begiratu batean, unitate buztintsu gorrixka bat da, eta hura aztertuz gero, oxigenoaren isotopoen eta karbonoaren isotopoen anomalia garrantzitsuak hautematen dira; aldaketa horiek atmosferara karbonoa isuri izanagatik gertatuko ziren, seguru asko.

Geoparkeko elementu geologikoen artean, PE muga eta KT muga dira garrantzitsuenetakoak nazioartean. Atmosferara karbono ugari isurtzeak berotegi-efektu handia eragin zuen, bai eta Lurraren historiako berotze klimatikorik handienetako bat ere. Berotze horrek ondorio handiak izan zituen planetako banaketa biotikoan; izan ere, gerriko klimatikoak desplazatu egin ziren, eta ekosistemetak baldintzak izugarri aldatu ziren.

Zumaiako buztinetan argi hautematen denez, foraminifero bentoniko asko desagertu egin ziren berotze horren ondorioz, eta aldaketa handiak gertatu ziren planktonikoen banaketan. Eskualde kontinentaletan, floraren eta faunaren aldaketa eta migrazio handiak ere eragin zituen berotzeak; ugaztunen aldaketak eta migrazioak, batik bat.

Zumaiako azaloramendua muga horren estratotipoa izateko proposatua izan zen 2004. urtean, baina azkenean ez zuten hala izendatu; dena den, nazioarteko erreferentziako azaloramendua da gaur egun ere Paleozeno/Eozenoko Maximo Termikoa (PETM) aztertzeko. Gertaera hark eta gaur egungo berotze klimatikoak antzekotasun batzuk dituztenez, eta azaloramendua ikusteko oso ondo dagoenez, zientzialari pila bat joaten dira Itzurun ingurura urtero.

## NOLA BERTARATU

Zumaiako herrigunetik oinez joan behar da Itzurun hondartzaren sarreraraino.

## GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

*In situ.*



Paleozoaren eta Eozenoaren arteko muga definitzen duen zati buztintsuaren ikuspegi orokorra.



**UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):**

X= 560033 m / Y= 4794413 m / Alt.= 18 m



Anomalia isotopikoak eta biotikoak hobekien erakusten dituen zati buztintsuaren, gertutik ikusita.